

EKONOMI HISTORIAREN HISTORIA: SARRERA BAT

Iban Zaldúa

Ekonomi historia azken mendeetan zehar bi zientziaren artean (Ekonomia eta Historia artean) garatu den disziplina bat da, gure ezaguera historikoa neurri handi batean aberastu duelarik. Kapitalismoaren garaipenaren eta industrializazioaren alaba, bere historia kulunkaria izan da, eta joera batzuek Ekonomiarengana gerturatu duten bitartean, beste batzuek Historiaren eremuetara eraman dute. Bi joera hauek kontutan harturik, haren hiru iturburu nagusiak ekonomilari klasikoak, germaniar eskola historizista eta materialismo historikoa direla esan dezakegu. XX. mendean ekonomi historiarekin zerikusia duten ikerketak izugarri ugaltu dira, aniztasun aberasgarria aurkeztuz.

Artikulu honekin zientzia historikoen barnean garrantzi handia lortu duen disziplina baten historia labur bat aurkeztu nahi dugu, ekonomi historiarena alegia, ingelesez "economic history" edo gaztelaniaz "historia económica" deitzen denarena. Gaiarekin zuzen-zuzenean sartu aurretik, ordea, hitz-multzo honen zentzua zertxobait argitzen saiatu beharko genuke. Eta konturatuko gara zailtasun ugari sortzen direla. Alde batetik, izendapen honekin unibertsitate mailan eskaintzen diren irakasgaiak batzuetan Historia edo "Letra-fakultateetan" aurkitzen ditugulako, beste batzuetan (gehiene-netan, Espainiako unibertsitateei dagokienez) Ekonomi fakultateen ikasketa-planetan azaltzen zaizkigun bitartean. Eta beste aldetik, bere burua ekonomi historialaritzat dutenen artean hezkuntzaz historialariak edo ekonomilariak direnak daudelako (eta oso gutxitan bi karrerak burutu dituztenak). Hortaz, disziplina bikoitz baten aurrean gaudela esan dezakegu, honek dakartzan arazo guztiekin.

Hau azaltzeko, konpara ditzagun ikerlari desberdinek ekonomi historiaz ematen saiatu diren zenbait adiera. Adibidez, C. M. Cipolla-k dio: "Ekonomi historia deitzen den disziplina (...) egite eta gertakizun ekonomikoen historia da, giza-banakako, enpresa edo kolektibo mailan...". D. C. Coleman-ek definizio hauek ematen ditu: "Nahikoa erraza da [ekonomi historia] iraganaldiko gizartearen aspektu ekonomikoen ikasketa dela esatea, edo baliabideen (hots, lur, lan eta kapitalaren) erabilera ekonomikoaren historia, edo

ekonomien portaeren azterketa lehenaldian". R. Floud-ek honako hau dio: "Ekonomi historiaren helburu nagusia produzitzen dutena beharrezkoak dituzten zerbitzu eta ondasunen truke aldatzeko, gizon-emakumeek mendeetan zehar nola lan egin duten beretzat eta besteentzat ikertzea da, eta hau aurrera eramateko zer bitarteko erabili duten aztertzea".

Azalpen hauek nahikoa "aseptikoak" dira, eta gehiengoarentzat, historialari nahiz ekonomilariarentzat, onargarriak izango lirateke. Baina gehiago sakontzen badugu eta beste komentario batzuk hartzen baditugu, zenbait arazo hasten dira sortzen. Cipolla berari jarraituz: "Ekonomi historia, bere izendapenak adierazten duen bezala, historiaren eta ekonomiaren arteko egoera eskizofrenikoan kokatzen da. Ekonomia jaio zenean, zentzu batean, ekonomi historia ere jaio zen, baina bitartean Historia aspaldidanik zegoen bizirik". Bide honetan oso kontutan hartu behar dugu N. F. R. Crafts-ek idazten duena: ekonomi historiak "...ekonomi politika egiten dutenentzat kuestio anitz argitzen lagun dezake"(...)[eta hortaz] "estatistikaren antzera, ekonomiaren profesionalen prestakuntzan parte garrantzitsu bat izan beharko luke". D. M. McCloskey-k antzeko zerbait dio, ekonomi historiak balio behar duela "...ekonomi teoria hobea, ekonomi politika hobea eta ekonomilari hobea produzitzeko". Aipamenekin bukatzeko, hona hemen F. Mendels-en bat: "Ekonomi historiak, bere izendapenak adierazten duen bezala, bi disziplinetan du jatorria, Ekonomian eta Historian. Ekonomi historiaren historia bi

disziplina hauen arteko joan-etorri bat da." Eta bere buruari galdetzen dio: "Bidezkoa al da beste leku eta beste garai batzuk aztertzeko asmatu diren kontzeptu ekonomiko abstraktuak denbora eta espazioan kokatutako beste egoera espezifikoei aplikatzea? Hau da luzaroan ekonomi historia kezkatu eta oraindik zatitzen duen arazoa."

Hauxe da idatzi honetan erabiliko dugun eskema: ekonomi historia bi zientziaren arteko ikasketa batzuek osatzen dutela, eta bere historia guztian zehar bi zientzia horietara gerturatu eta horietatik aldendu egin dela, honek ekarri dizkion arazo guztiekin, bere burua definitzeko, bere gune akademikoa aurkitzeko, edo bere ezaguera zabaltzeko. Bere bidea, hortaz, kulunkaria izan da, eta askotan bi gerturaketa hauek defendatzen duten joerak, eskolak edo korronteak elkarrekin bizi izan dira, nahiz eta gutxitan nahastu edo elkarrekin lan egin. Denek aberastu dute, modu batean edo bestean, historiak dugun ezaguera. Orokorrean, esan daiteke ekonomi historia praktikatzen duten ekonomilariek, beren hezkuntza ekonomikoaren hobekuntza bat bezala, erabiltzen dituzten ekonomi teoria desberdinentzako frogen bila jotzen dutela Historiara. Oso eskematikoki azaltzea bada ere, ekonomi historialari kontsideratzen diren historialariek interesa dute iraganeko ekonomian, honek historia esplikatzeke duen indarra handia dela uste dutelako, eta bere azalpenak ia beti Historia orokorraren beste arloekin lotzen dituzte, gerturaketa espezifikoagoak eginez eta iturri zuzenen azterketatik

hasita, ekonomi teoriari jaramon gutxi(egi) eginez, ekonomilariek egiten ez duten bezala. Zentzu honetan, ekonomilariek ia betidanik ekonomi teoriaren ezaguera-falta aurpegiratu diete historialariei.

Baina ezin da ukatu ekonomi historiaren eragina, Historian zientzia bezala, oso aberasgarria izan dela, eta oraindik (gure ustez) hala dela. Gaurrengungo edozein eskuliburu hartzea nahikoa da: pentsaezina da Euskal Herriko, Afrikako, Erdi Aroko edo Barakaldoko historia egitean, aztertzen diren garai eta lekuetako ekonomiaz/-ez aipamenik ez azaltzea. Hau, orain dela berrogei edo berrogeitamar urte ez zen honela, eta Espainian agian ezta duela gutxiago ere. Ekonomi historiaren ahaleginak, askotan giza historiarekin batera, funtsezkoak izan dira gaurregun iraganaz dugun ezaguera moldatzeko, beharbada Ekonomi zientzian izan duten eragina baino gehiago. Guzti honengatik interesgarria iruditu zaigu disziplina honen historiaren eta historiografiaren azterketa bat egitea, laburra, kondentsatua eta batzuetan matizatu gabea bada ere.

Sorrera

Ekonomi historia, gai honetaz aritu diren gehienek arabera, XVIII. mendeko bukaeraldiaren eta XIX. mendeko hasieraren artean jaio bide zen, oso lotuta, berez, Ekonomi zientziaren jaiotzarekin, gaur ezagutzen dugun bezala alegia. Hala ere, garai honetan eta XIX. mendearen zatirik handienean zehar ezin dugu

aparteko disziplina independente bezala kontsideratu (hau ez da gertatuko XX. menderarte), baina bai interes-gune edo esfera argi bat bezala.

Sorrera hau XVIII-XIX. mendeen artean garatzea ez da arraroa. Denbora haiek aldaketa-garaia izan ziren, batez ere bi prozesutan isladatu zelarik: Britainia Haundiko Industri Iraultza eta Iraultza Frantsesean eta bere ondorioetan. Gertakizun hauekin garaiko pentsatzaileak aldaketaren, progresoaren existentziaz eta indarraz jabetu ziren, bai alor politikoan, bai alor ekonomikoan ere. Honek eragin handia izan zuen Ekonomia eta Historia zientzia berri edo berri bezala ezartzean, eta ekonomi historia ere bultzatu zuen, ematen ari ziren aldaketa guzti horien atzean zer iturburu zegoen ezagutzeko jakinmina piztu zuelako. Joera lehendik badator ere, aldaketa hauek ez ziren ikusten naturalak edo Jainkoak bultzatutakoak bezala, eta zenbaitek azalpen berriak bilatzera jo zuten.

Ekonomi historiaren aitzindarien artean beti aipatzen diren lehenengoak ekonomilari klasikoak dira, Ekonomia Politikoaren praktikatzaileak alegia, inposatzen ari zen mundu kapitalista berria ulertzen eta azaltzen saiatu ziren lehenengoetakoak. Haien izenak ezagunak dira oso: A. Smith (bere Nazioen Aberastasuna obrarekin), D. Hume, A. Fergusson, D. Ricardo, J. Mill, J. R. McCulloch... eraginik handiena XVIII. mendeko bukaeraldetik XIX. mendeko lehen erdialderarte izan zutelarik. Funtsean britainiar eskola izan bazen ere, bere isladak Europako beste eskualdeetan

ere nabaritu ziren (adibidez, Frantzian, J. B. Say-rekin, etab.etan). Ekonomilari klasiko hauek, bereziki lehenengoak (Smith buru) iragan historikoa oso kontutan hartu zuten bere teoriak (ekonomiaren naturaz, salneurriez, Estatuaren ekonomian eskuhartzeaz...) eratzeko eta adibideak emateko, hau da, ekonomiaren ikuspegi denborazkoa eta dinamikoa zuten. Hala ere aritzeko era honek lege orokorrak formulatzeko balio izan zien.

Eskola honen barnean kokatzen diren beranduagoko egileen lana (Ricardo, Mill, etab.ena) gero eta teorikoago bihurtu zen, historia-renganako lehenengo interes hori alde batera utzita, eta ekonomia kapitalista ideal baten mugimenduak era deduktiboan azaltzen zituzten formulen garapenean kontzentratu ziren. Joera hau A. Marshall eta neoklasiko eta marginalistekin sakondu egingo zen, eta modu honetan, XIX. mendean zehar, Historia ekonomi teoriaren erdigune akademikotik aldentzen joango da, anglosaxoiar munduan behintzat.

Ekonomi historiaren bigarren iturburu nagusia, XIX. mendean, Alemanian aurki dezakegu, eskola historizista alegia. Historian bezala, germaniar historizismoak bere islada izan zuen Ekonomian ere, Ekonomiako Eskola Historikoa deitu izan denean alegia. Korrante honen fundatzailetzat ekonomia politikoaren irakaskuntza aritu zen F. List jo izan da, XIX. mendeko bigarren eta hirugarren hamarkaden inguruan. Guzti hau, garai hartan bere hastapenetan zegoen

alemaniar eraikuntza nazionalarekin, eta han Iraultza Frantsesaren ondorio orokortzaileen kontra ematen ari zen erantzun ideologikoarekin erlazionatu behar dugu. List-en ideiak ekonomilari klasikoekin kontra zihoazen, bereziki hauen unibertsalismoa zela eta: eskola honetako partaideek lege ekonomiko orokorrak arbuizaten zituzten, leku eta garai desberdinendako egoera eta bilakaera ekonomikoekin berezitasunak azpimarratuz. Historia, hortaz, tresna baliagarritzat joko dute. Korrante hau, adar desberdinetan zatiturik, Alemaniako batasunaren aldekoa izango da eta hortaz bere formulazio nagusiak nazionalismoaren eta protekzionismoaren sostengu izan ziren, gizartearen bilakaera desberdinduen ideiarekin defentsa zela medio.

List irakaslearen ideien gain Eskola Historiko Zaharra eratuko da, W. Roscher, B. Hildebrand edo K. Knies bezalako gizonez osaturik; XIX. mendeko erdialdean eragin handia izan zuten hauek Alemanian. Kula-ren ustez, ekonomilariak baino, ekonomi historialariak kontsidera ditzakegu. Ekonomiaren metodologia historikoaren defendatzaile izan ziren: lege ekonomikoak nazio bakoitzeko ikerketa historiko baten ondoren eta ondorioz inferitu beharko liriateke, hauen iritziz. Honetarako, gainera, ez iragan ekonomikoa soilik, baizik eta, horrez gain, baita nazio bakoitzeko bereizitasun politikoak, kulturalak, juridikoak, etab... ere kontutan hartu behar dela defendatzen zuten. Hala ere, ekonomilari hauek lege ekonomikoak eraiki daitezkeela defendatzen jarraitzen zuten (nahiz eta lege hauek

espezifikoa izan behar), eta ekonomiaren mailakatze-sistema desberdinak proposatu zituzten, denboran zehar mailakatzen diren sistemak alegia.

Historizismoaren ordezkariak eraginkorrenak aurreko hauen ondorengoak izan ziren, Eskola Historiko Berria osatu zutenak alegia. Mendearen azken herenean eratu eta indartu zen eskola hau, bere burua G. Schmoller izan zelarik. Honek ekonomi teoriak eratzeko posibilitatea ukatzen zuen: bere esanetan hauek ezinezkoak dira, denboran zehar eta eskualdeen edo nazioen arabera, ekonomi fenomenoaren desberdintasuna handiegia litzatekeelako. Klasikoekin jarraitzen aurrean, hortaz, metodologia induktibo bat proposatzen zuten; azken finean datu ekonomiko ugariaren bilketan gauzatuko zen hau, eskualde eta garai desberdinentzat monografia pilo bat produzituz, dokumentazio aberatsean oinarrituak (adibidez, Alemaniako Erdi Aroko hirietako gremio desberdinei buruz...). Eskola honetako azken ordezkariak ordea (K. Bücher, L. Brentano...) teoriarekiko jarrera positiboagoa aurkeztu zuten, Schmoller-en antideduktibismo hura pixkanaka alde batera utzita, geroago etorriko den Eskola Historiko Berriari ateak zabalduz.

Eskola honen beste ezaugarri bat bere antimarxismoa eta materialismo historikoaren aurkako borroka izan zen: arrazoiak, lege ekonomikoekin eta historikoekin arbuioaz aparte, eskolako partaideen nazionalismoa eta kontserbadurismoan aurki ditzakegu: Schmoller Alemaniar Inperioaren

propagandista handia izan zen. Eskola Historikoaren nagusigoa erabatekoa izan zen alemaniar Ekonomiaren akademi munduan XIX. mendean zehar eta, honela, bere eragina Britainia Haundira eta Estatu Batuetara zabaldu zen neurri desberdinetan, bereziki herrialde hauetan Ekonomi zientziak hartu zuen joera teorikoeiarekin ados ez zeudenengana.

Britainia Haundian tradizio hau guztiz hilda ez bazegoen ere, mendearen erdialdetik Eskola Historikoaren eraginez J. K. Ingram edo T. E. C. Leslie bezalako ikerlariak historiarekiko interesa berreskuratu egin zuten Ekonomiaren barnean, eta bere ondorengoak Britainiar Ekonomia Historikoaren multzo heteroegoaren bultzatzaileak izan ziren, 1880 ingurutik XX. mendeko lehenengo hamarkadak arte. Korrante honen barnean ekonomilariak aurkitzen ditugu (J. E. Thorold Rogers, A. Toynbee, W. Cunningham...), baina baita historialariak ere (G. Unwin, J. H. Clapham, R. H. Tawney...). Guzti hauen garrantzia oso handia da beraiek hasi direlako ekonomi historiako aparteko disziplina bezala instituzionalizatzen (honela, Ashley-k lehen ekonomi historia katedra lortu zuen 1891.ean, Harvard-en). Zenbaitzuen ustez "espezializazio" hau neoklasiko eta marginalisten kontrako nolabaiteko erreakzio bat izan zen.

Eskola honen ikerkuntzaren bultzatzaile nagusia azken mendeetan Britainia Haundian gertatutako ekonomi eta giza aldaketa sakonen azalpenen bilaketa izan zen: Industri

Iraultza (Toynbee-k finkatutako izendapena), tekniken progresoa, klase xumeen bizi-mailetan emandako aldaketak, nekazal gizartean gauzatutakoak.... Joera amankomun bat bilatzea zaila da, hala ere. Orokorrean esan daiteke deduktibismoa eta ekonomi teoriaren erabilera alde batera utzi gabe, historia oso kontutan hartzen dutela, zentzu zabalean gainera, egite sozialak, politikoak eta kulturalak azpimarratuz...

Estatu Batuetan ere ekonomi historiarekiko interesa, XIX. mendeko bukaeraldian berpiztu zen, Instituzionalismo delakoaren bitartez. Ekonomiariz osatua, ez da benetako eskola homogenea, bere ordezkari nagusienen bideak (W. C. Mitchell, Commons, T. Veblen-enak...) nahikoa desberdinak izan baitziren. Alemaniar Eskola Historikoaren eraginpean, bere lanen oinarrian Ekonomia marginalistaren abstrakzio-maila altuen arbuioa, Ekonomia beste giza zientzietara gerturatzeko asmoa, eta ikerketa kuantitatibo eta exaktoekiko interesa aurki ditzakegu. Guzti hau datuen bilketa sistematiko batean isladatu zen, XX. mendeko Enpresa Historiaren gain eragina izango duelarik.

Klasikoekin eta historizistekin batera, ekonomi historiaren hirugarren iturburu nagusia Materialismo Historikoa izango litzateke. K. Marx eta F. Engels-ek XIX. mendeko erdialdean eman zioten lehen formulazioa, obra desberdinen artean sakabanatuta eta, hortaz, teoria finko bezala inoiz bukatu gabe. Teoria irekia dugu, eta hau izan da aipatu den bere

indarren arteko bat. Materialismo historikoaren eragina ekonomi historiaren erakuntzan oso handia izan da, nahiz eta, ikuspuntu marxista hertsiki batetik ekonomi historia bezalako disziplina espezializatu batek zentzu handirik ez izan, marxismoak, berez, Historia osotasun bat bezala ikusten bait du. Baina garrantzia izan du, batez ere, gizarte desberdinen bilakaeraren oinarrian ekonomia eta bere indarrak, produkzioa alegia, daudela azpimarratzen duelako. Honela, produkzio-era, produkzio-indarra, produkzio-erlazioak, gaine-gitura etab. bezalako kontzeptuak planteamenduen erdigune bihurtzen dira, baina inoiz ekonomizismoan erori gabe, bi egileek behin baino gehiagotan errepikatu zuten bezala. Ildo honetan, klasikoek eta ilustratuek egiten zuten bezala, Marx-i posible zaio iraganaldiko analisi sakon batetik "legeak" inferitzea, baina historizismoak irakasten duen bezala, garai historikoaren espezifikotasunaz jabetzen zen, Historia bera bilakatuz teoriaren iturburu.

Materialismo historikoak, bestalde, esplizituki helburu bat asumitzen zuen, aurreko eskolek ez bezala: historiaren ezaguera sakonagoa lortzea, bereziki kapitalismoarena eta beronen sorrerarena, beraren kontra borrokatzeko deuseztu arte. Marx-en ikerketa sakonenean, hortaz, ildo hau jarraitu zuten, aurreko produkzio-erak gutxiago ukituz eta materialismo historikoaren izaera ireki hori eratuz. Helburu iraultzaile horiek beste zerbait ere adierazten digute: materialismo historikoaren eragina, handia izanik ere, nabariagoa izango dela XX.

mendean XIX. mendean baino, bereziki eremu akademikoetan, hauetan sartzeko izango zituen zailtasunak zirela eta (batez ere historizismoak menperatzen zituen giroetan).

XX. mendea

Gure mendera sartzean gertakizunik garrantzitsuena disziplinaren emantzipazioa da. Ekonomiaren barnean bi bide nagusiren arteko lehiak segitzen duen bitartean, eta Eskola Historikoaren jarraitzaileek kalitate desberdineko lotura handirik gabeko eskualde-monografiak eta datu-pilaketa izugarriak egiten diharduten bitartean (Kula-k "faktografia" izendatu duena), ekonomi historia askatzen ari da, disziplina bezala, Ekonomiaren orbitan zegoen interesgune izate soilari utziz. Finkapen honetan parte hartze nagusia dute, alde batetik, mendeko hiru hamarkadetan zehar izenburuan "ekonomi historia" (batzuetan "giza historiarekin" batera) formula daramaten aldizkari desberdinak sortu izanak (*Vierteljahrschrift für Sozial und Wirtschaftsgeschichte*, 1903; *Revue d'Histoire Economique et Sociale*, 1908; *Business History Review*, 1926; *Economic History Review*, 1927; *Journal of Economic and Business History*, 1928); eta bestetik, garai bereberetan, aipatutako katedrak sortu izanak unibertsitate-munduan.

Finkapen honetan zenbait korronteren lanak funtsezkoak izan ziren, eta helburua historizismoaren

akatsekin bukatzea zuten. Hau ez zen soilik Ekonomiaren eta ekonomi historiaren eremuan gertatu: jarrera orokorragoa izan zen eta Historiara ere zabaldu zen, batez ere rankear moduko historialaritzaren aurka. Ekonomi historiaren indartzea Historia egiteko estilo positibista horren aurka borrokatzeko bide bat izan zen: obra luze eta dotoreak egiten baitziren, baina bakarrik egite politiko eta militarrek, dinastia eta jeneralak agertuz.

Erreakzio hau, Alemanian, Eskola Historiko Berriaren kontra eratu zen. Honela, bateratzeko nahikoa zaila kontsideratu den Eskola Historiko Berriena sortu zen: A. Spiethoff, W. Sombart eta M. Weber dira ezagunenak. Orokorrean, Schmoller eta bere jarraitzaileek praktikatzen zuten datuen bilketa hutsa gogor salatu zuten, Historiaren eta Ekonomiaren arteko gerturaketa bat emateko bide berriak ireki nahi izan zituzten, eta teorien formulazioaren kontrako jarrera alde batera utzi zuten, aldi berean hipotesi, lege eta eredu azalpen-indarra azpimarratzen zutelarik (gogora ditzagun, besterik ez bada, Weber-en "tipo idealak"). Egile hauek historialariak ez badira ere, argi dago historiaren erabilera egiten dutena, eta sistema ekonomikoak edo sistema ekonomikoen osagarriak definitu nahi zituzten, ikerkuntzarako tresna bezala erabiliz.

Beste erreakzio-foku bat Frantzian dugu, M. Bloch eta L. Febvre-k 1929.ean fundatu zuten *Annales d'Histoire Economique et Sociale* aldizkariaren inguruan. Historiaren

eremutik eman zen, baina beste zientzia eta disziplinetatik jasotako eraginak sakonak izan ziren: ordurarteko soziologia frantsesarenak (batez ere Durkheim, Simiand, Berr eta bere *Revue de Synthèse Historique* delakoarenak), Vidal de la Blache-ren giza geografiarenak, Pirenne belgikar historialariarenak, marxismoarenak eta frantses historia sozialistarenak (adibidez, Jaurès-enak...), etab... Proiektua laburtuz, puntu nagusi hauek bereiz daitezke: ordurarte European nagusi zen historizismoaren eta historia politiko hutsaren arbuioa, alternatiba gisa Historia gizartearen zientzia nagusi bezala aurkeztuz, egiteen historiaren kontra arazoan historia bat proposatuz; Historia total bat eraikitze asmoa, gizarte jakin bat osatzen duten maila guztien analisiaren sintesi bat lortzeko; azkenik, berritasunak metodologiaren alorrean, beste zientzia eta disziplinen ekarpenak sakonki erabiliz: Geografia, Soziologia, Psikologia, Antropologia, Arkeologia, Ekonomia, Demografia, Estatistikarenak...

Baina aldi berean (eta hau da Fontana-k egiten dien kritikarik gogorrenetakoa) Historiaren teoria orokor bat eraikitzearen aurkako bezala agertuko dira; huts honek proiektu amankomun baten falta ekarriko die eta berarekin "Annales" eskolaren aldaketa eta gorabehera ugariak, aldizkariaren izenburuaren aldaketetan isladaturik (*Annales d'Histoire Sociale*, 1939-41; *Mélanges d'Histoire Sociale*, 1942-44; *Annales. Economies. Sociétés. Civilisations*, 1945 hh.). Honela, eskola honek hasiera batean ekonomi historiari

bultzada handia eman bazion, alor honetan zuen ardura denboraren poderioz iluntzen eta desagertzen joan da, eta ez dago egun (berezi 70.eko hamarkadatik aurrera) bere analisisen muinean. Iraganeko ekonomien ikerketaren ordeztu analisi "mikroskopikoetara" jo du, metodologia eklettiko baten aplikazio gehiegizkoaren bidez, eta Historiaren ordeztu historia txiki desberdinez osatutako panorama bat aurkeztuz: pentsamoldeen historia, heriotzaren historia, prostituzioaren historia... Dosse-k *Annales*-en adaptazio-ahalmena azpimarratu du, hiru mementuetan gertatu eta bi ikuspuntu meneratzaile emanez. Historia orokortzaile horren aurrean, gaur egun garrantzi gehien duen ikuspuntuak, Dosse-ren ustez, lau haustura barneratuko lituzke: gizon-emakumerik gabeko historia bihurtzea, historia mugiezina eraikitzea, antzinaren eta etorkizunaren arteko eten bat izatea (Historiak ez du gehiago balio gaurko eguna argitzeko eta etorkizunerako proiektu bat eraikitzeko...), eta perspektiba orokortzailea galtzea. Hala ere, Bloch eta Febvre-ren ondoren, *Annales* eskolaren eragina oso inportantea izan da, berezi F. Braudel maila mantentzen saiatu zen bitartean. Eragin hauek nabariak izan dira berezi bi alorretan: alde batetik, geroago aipatuko dugun "historia serialaren" produkzioan; eta bestetik, demografia historikoaren aurrerapenetan (nahiz eta ikerketa-lerro hau hartu duten guztiak *Annales*-ekoak ez izan, noski). Ekonomi historiaren disziplina laguntzaile ahaztezina dugu hau, bere fruiturik hobereenak arazo historiko

zabalagoekin batera ikertzean eman dituen. Izen batzuk gogoratzeagatik, hortxe ditugu L. Henry, J. Dupâquier, Wrigley edo Schofield-enak...

XX. mendea aurrera zihoan bitartean ekonomi historiak bere berrikuntzarako hartu zuen beste bidea Ekonomiaren ildotik gertuago igarotzen zen, eta hau kuantifikazio sistematikoarena izan zen. Bide hau bai ekonomilariet bai historialariet hartu dute, ekonomi teoriaren aplikazio zehatzagoak lortzeko, edo soilik kontaketa- eta ikerkuntza-oinarri ziurragoak lortzeko. Bide honetan korronte desberdinak eratuz joan dira. Adibide bat ziklo ekonomikoet buruz egindako ikerketak izan ziren, berezi ekonomilarien lanak, baina iraganaren analisisira jo behar izan zutenak ekonomian ematen ziren sakonera eta iraupen desberdineko gorabeheren erregulartasunaren agerpena azaltzeko. Juglar-ek, XIX. mendean, arlo honetako zenbait ikerketa aurrera eramane bazuen ere, hauek ez ziren orokortu gerrarteko hamarkadak arte, Depresio Handiak sortutako kontzientziarekin batera. Honela, egile desberdinek ziklo luzeagoak edo motzagoak aurkitu eta definitu zituzten, tipologia desberdinak erabiliz, ekonomia kapitalistaren gorabeherak azaltzeko. Haien artean ekonomilariak (N. D. Kondratieff, J. A. Schumpeter eta bere "negozio-zikloak",...) eta ekonomi historialariak (Phelps Brown, W. Abel...) aurki ditzakegu. II. Mundu-Gerraren ostean zenbaitzu ikerketa-lerro berean kokatzen baziren ere (Rostow, Matthews, Tinbergen...), 50.eko hamarkadarako indarra galduz joan

zen, ekonomi oparotasunarekin batera ("garapena" izan zen modan jarri zen izena). Ikerketa-eremu hau ez da berrindartuko 70-80.eko hamarkadak arte, hots, krisialdi berriak tankera berdineko lanak bultzatu arte, adibidez Mandel ekonomilari marxistarenak (nahiz eta uhin luzeen teoriari egiten zaizkien kritikak gogorrak izan, esate baterako Maddison-enak).

Kuantifikazioaren hariari jarraituz, Historia Seriala aipatu beharra dago. Berez, korrante honetan kokatzen diren askok zerikusia dute *Annales* eskolarekin, ekonomi historiari gehien lotuta zeuden "annalestarrek" hain zuzen ere. Baina eskola honetan parte hartzen ez zuten hainbat egile garrantzitsu aurkitzen ditugu. Hauen helburua, orokorrean, epe luzea ikertzea zen, eta horretarako ekonomikoki adierazgarri gerta zitezkeen aldagaien zerrenda edo "serieen" bilketa eta eraikuntzan oinarritzen dira: prezioak, populazioa, produkzioa, soldatak, errentak... Oinarri hauek kontutan harturik interpretazio sakonak proposatuko zituzten, bai koiunturari bai estrukturari dagokionez, normalean soilik ekonomikoak ez diren beste hainbat aldagaien erabilerarekin batera. Gehienetan historialariak dira eta ez dute "a priori" ekonomi teoria bat erabiltzen. Lehenengo, garai eta eskualde bakoitzerako hainbat ikerketa monografiko egin beharko lirateke hauen iritziz, eskualdeka, arloka, etab., gero, azken pausu bezala gizarte bakoitzarentzako eredu bat formulatzea posible izan arte. Estatistika historikoen erabileraren aitzindariak dira, eta

gehienbat Aro Modernoaz aritu izan dira, XIX.-XX. mendeak gero ikusiko ditugun beste eskola kuantitatiboan "eskuetan" utziz. Bere eragina gaur arte ailegatzen bada ere, 30.eko hamarkadatik aurrera hartzen dute pisua, beste batzuen artean E. J. Hamilton, E. Labrousse, Beveridge, Posthumus, C. Verlinden, F. Spooner, P. Chaunu (korronteari izena eman ziona), F. Mauro, P. Jeannin, V. Malgalhaes, etab., etab. azpimarra daitezkeelarik.

50.eko hamarkadan, ekonomi historiaren bilakaeran garrantzi handia izango dute hazkunderari buruzko teoriak, nahiz eta berez Ekonomi zientziaren barne-bilakaera izan, keynesianismoaren eraginpean. Teoria hauek garaiko optimismo ekonomikoa eta zikloen teorien bazterketa isladatzen dute. Helburu nagusiak bi ziren: alde batetik, herrialde garatuen hazkunde ekonomikoa nola eta zergatik eman zen azaltzea (berezi kontutan harturik guda ostean Europako berreraikuntzak zer zekarren berarekin, eta Gerra Hotzak, oinarri berriko eredu industrializatzaile batekin inposatzen zuen kompetentzia); eta bestetik, independentzia lortzen ari ziren herrialde kolonial eta azpigaratuen hazkunderako formulak aurkitzea. Adibideak bilatzeko, ereduak eraikitzeke eta analisiak egiteke historiara jo zuten, berezi azkenengo bi-hiru mendeetakora: honen ondorio bat Industri Iraultzaren kontzeptuaren inguruko eztabaiden berraktibazioa izan zen. Alor hau landu zutenen artean Lewis, W. W. Rostow, A. Gerschenkron, Hicks,... ditugu.

Teori hauekin nahikoa lotuta dago Historia Kuantitatiboa deitu izan dena (gehienbat Frantzian). Korrante honen sorrera Estatu Batuetan eman zen, 50.eko hamarkadan hau ere. Hemen S. Kuznets eta bere keynesiar lantaldeak kontabilitate nazionalen (hots, Barne-Produktu Gordina bere eredu desberdinetan, bere eratorriak, etab.) berreraikuntza historikoak egitea hartu zuten helburutzat, Estatu Batuetako iturri estatistikoaren aberastasunaz baliatuz. Honela, Kuznets eta bere laguntzaileak, EEBB-etako iragan ekonomiko gertuaz aritu ziren, XIX. mendearen erdialderarte: lehenagoko iturrietan hutsune gehiegi daude estrapolazio ziurrak egiteko.

Azterrian ere eredu hau jarraitu zen: P. Deane eta A. H. Cole Britainia Handian, eta J. Marzewski Frantzian, izan ziren nagusiak (korrontearen izena Marzewski-k kaleratu zuen). Historia serialaren aurrean, Historia kuantitatiboa batez ere azken bi mende hauetaz arduratzen da, eta bere ekarpena garrantzitsua izan da Ekonomian historiarekiko interesa berpiztu duelako. Kritika gogorren artean erabilitako zenbait iturriren fidagarritasun-faltaren salaketak, eta ekonomikoak ez diren beste aldagai eta azalpenei ia jaramonik ez egitea daude.

Hurrengo eskola Ekonomi Historia Berria ("New Economic History") izango litzateke. 50.eko hamarkadaren bukaeraldian sortu zen. Estatu Batuetan, bere bultzatzaileak nahikoa giro antiprogresistan murgildutako ekonomilari gazteak izan ziren. Hauen helburu nagusia Historia Ekonomiaren

eremuetara itzularaztea zen, edo, bestela esanda, ekonomi teoria neoklasikoa Historian aplikatzea. Beraientzat ekonomi historiak zientzia "gogorren" artean egon behar du, Fisikarekin edo Biologiarekin batera, eta honek esan nahi du teoria batzuen arabera (kasu honetan teoria neoklasikoen arabera) hipotesi batzuk formulatu beharko lirakeela, eta gero hipotesi horiek frogatu metodologia matematiko edo kliometriko bat erabiliz. Hipotesi hauek ahalik eta zehatzen frogatu behar direnez, teoriari dagozkiokeen ahalik eta aldagai gehienak bilatu beharko dira iraganean, estatistikak, datu ekonomikoen zerrendak, etab. sakonki ustiatuz. Horregatik normalean haien ikerketak XIX. eta XX. mendei buruzkoak izaten dira. Baina hipotesi horiek frogatzea zaila denez gero (ez dugu laborategiak erabiltzeko aukerarik, beste zientzietan bezala), "kontrafaktual" direlakoan erabilera proposatzen dute: ikertzen den garaiko eredu ekonomiko bat eraikitzea bildutako datuekin, eredu hori emaitza bezala eman zuten baldintzak eta aldagai nagusiak finkatu eta desberdintzea, azkenik baldintza horietako bat aldatu edo ezabatzea (eskeman alegia), ikusteko ea nolako garrantzia edo eragina izan zezakeen ekonomian, ereduan. Adibide klasikoa Fogel-ena da: trenbidearen garrantzia Estatu Batuetako garapenean ez zela hain funtsezkoa izan frogatzeko, eredu bat eraiki zuen zinetan kalkulatu bait zuen zer gertatuko zitzaiokeen 1890.ean Estatu Batuetako ekonomiari trenbidea izan ez balitz. Produktu Gordina gutxi beheratzen zela ikusi zuen Fogel-ek ondorio legez eta,

hortaz, trenbidearen garrantzi ekonomikoa uste baino txikiagoa izan zela. Hala ere, metodologia honek ez ditu soluzio homogenoak ematen. Galdera berdinari erantzunez, Fishlow-ek trenbideak 1859.ean ez zirela nahitaezkoak esan zuen, baina bai ordea 1890.eko ekonomian.

Bere praktikatzaileen artean, Fogel-ek gain, A. Fishlow, L. E. Davis, S. L. Engerman, R. A. Easterlin, etab. daude. Honetaz aritu direnen arabera, eskola honen emaitza positiboak bi dira: alde batetik, kuantifikazio zehatzari ematen dioten garrantzia, eta beste aldetik, ekonomi historian tradizionalak ziren zenbait interpretazioren ezeztapena edo kolokan jartzea, zenbait kasutan berplantamenduetara eramanez. Kritikak, hala ere, gogorak izan dira: gertakizun historikoak baztertzeko dituztela kontrafaktualen erabilera dela medio, historia-fikzioa egiten dutela; ekonomi historia hutsa idazten dutela, ekonomikoak ez diren beste aldagaiak, kontaezinak direnez, alde batera utziz (gizakia ahazten dutela); eta bereziki ekonomia neoklasikoaren puntuak baino ez dituztela onartzen, leku eta egoera guztietarako. Beste kritika bat formula matematikoen gehiegikeria, narrazio-falta eta lanen aspergarritasuna biltzen duena dugu. "New economic history" honen arrakasta nahikoa handia izan da, eta laster zabaldu zen 60.eko eta 70.eko hamarkadetan hain zuzen ere, Estatu Batuetatik beste nazioetara.

Aurreko hauek baino kritika gehiago entzun dute, ordea, Ekonomi Historia Berriena deitu izan den

eskolakoek. Ekonomi Historia Berriaren enborretik sortua, Estatu Batuetan sortzen zen hau ere, besteak beste, D. C. North eta R. Thomas egileek bultzaturik. Eskola honetako partaideen intentzioa, beraien ustez Ekonomi Historia Berriak zituen zenbait akats konpontzea zen, hala nola aldaketa ekonomiko sakonen azalpenik eza, epe luzeaz ez aritzea eta XIX. mendeko aurreko garaiak eskola horren ahaleginetatik kanpo geratzea. Guzti hau ekonomi teoria neoklasikoa alde batera utzi gabe lortu nahi dute, argumentu berrien erabilera bultzatzeaz aparte: demografiaren eragina, ekonomi eta beste motatako erakundeen zereginen azterketa, ezagueren zabalpena historian zehar... Bere ikerketetan ekonomi historialari berriak baino atzerago joaten dira, eta soilik ekonomikoak ez diren egiteentzako azalpenak ematen dituzte. Horrela, epe luzea esplikatzeko saiatzen direnean, populazioaren presioa bihurtzen da, era malthusiar erraz batean, ekonomi progresuaren bultzatzaile. Horregatik kritikak nahikoa ugari dira: populazioa aldagai independentetzat jotzen dutela, ekonomi teoria era ez-historikoan erabiltzen dutela, mendebaldartasuna, eta erredukzionistegiak direla, teoria neoklasikotik ateratako arrazoiek historia osoan emandako gertakizun eta prozesuek planteatutako galderak erantzungo balituzte bezala... Fontana-ren ustez adar hau erreakzio kontserbatzaile baten barnean kontsideratu behar dugu, zeinetan Ekonomi Historia Berrienak bere ama den Ekonomi Historia Berriak erantzuten ez zituen galderak argitu nahi bait zituen.

Beste korronte garrantzitsu bat, ia independentzia lortu duena, eta aurrekoena baino bizi luzeagoa izan duena, Enpresa-Historia dugu ("Business History"). Hau ere Estatu Batuetan jaio zen, Institutuzionalismoaren eraginpean, orokorrean bi bide jarraituz garatu zelarik: alde batetik, enpresa eta enpresari konkretuen historien ikerkuntzan ihardun zuena, bereziki gerrarte garaian. N. S. B. Gras izan zen, Harvard-etik, haren buru; eta bestetik, enpresen historiak (askotan arlo edo azpiarlo batenak) giza eta ekonomi testuinguru zabalago batean kokatzen saiatzen dena. Enpresa-historia forma hartzen ari zen garaian (mendeko lehenengo hamarkadetan) hau izan bazen biderik ibiliena, E. F. Gay edo A. Cole bezalako jendearekin, gerraostean tradizio honen jarraitzaile eta berritzaileen lanek geroz eta pisu handiagoa edukiko dute, D. S. Landes edo A. D. Chandler bezalako ikertzaileekin. Ezin dugu ahaztu adar honen gain J. Schumpeter, J. K. Galbraith eta antzekoen lanek izan duten eragina. Beste nazioetan, ordea, Enpresa-Historia mantsoago garatu da, historialariei lotuagoa gainera: Europa aldean bere hastapenak, bereziki Britainia Haundian, 30.eko hamarkadaren inguruan koka baldin badaitezke ere, korronte honek ez du indarrik hartzen, Frantzia edo Alemanian bezala, 50.eko hamarkada arte. Zenbait idazleren arabera, badirudi Enpresa-Historia Ekonomi historia berritzeko tresna nagusi-enetakoa bihur daitekeela, beste arrazoen artean alor hau gutxi jorratu izan delako iturrien aldetik.

Azkenik, kontutan hartu beharko genituzke Materialismo Historikoaren progresuak XX. mendean zehar, ekonomi historiari dagokionez. Esan dezakegu, aurreko mendearekin konparatuz, garrantzia hartu duela eta ikertzaile gehiagoren lanek aberastu dutela. Honek ez du esan nahi bakarrik joera positiboak izan direnik. Hauekin batera korronte erredukzionistak dei ditzakegunak ere aurkitzen ditugu, materialismo historikoa katezismo hutsal bihurtu dutenak: mugimendu sindikalaren garaipenak eta sozialdemokraziaren epeltze-prozesuak ekarritako ekonomizismoa; marxismoaren azalpen bulgarizatzaileak (v. gr., Bujarin eta Plejanov-enak), bereziki Sobietar Iraultzaren ondoren eta are gehiago estalinismoarekin, materialismo historikoa eraikuntza finko, huts eta mugiezin bihurtu zuena erregimena defendatzeko helburuz; edota baita mendebaldean 60.eko hamarkadatik modan jartzen den estrukturalismo marxista ere, L. Althusser eta bere jarraitzaileena, gizon-emakumeen egiteen ordeztuak produkzio-era edota klase-borroka bezalako kategoriak azpimarratzen dituenak, errealitate historikoan oinarritu gabeko eraikuntza teoriko bat historiaren ordeztu bezala sostengatuz, bere argudio guztiak lengoia kriptiko baten bidez estaltzen dituen bitartean.

Bestalde, mende hasieratik zenbait egileren lanek, historialaritzaren barnean kontsideratu ezin baditugu ere, eragin handia izan dute materialismo historikoaren bilakaeran eta bereziki 30.eko hamarkadatik aurrera arituko diren historialari marxistengan. Hauen artean koka daitezke Lenin-en

lanak kapitalismoaren bilakaeraz Errusian eta inperialismoaz; R. Luxemburg-enak Poloniako industrializazioaz; R. Hilferding-enak finantz kapitalaz; A. Gramsci-renak gaine-gituraz, etab.... Historialariek oso kontutan izan dituzte ekonomi historiako aspektuak bere lanetan. Aipa daitezkeen artean zenbait frantses historialari marxista dugu, eragin desberdinak jasotzen dituztenak (Jaures eta frantses historiografia sozialista, Simiand, "Annales"...) eta partehartze nabaria izan dutenak ekonomi historiaren bilakaeran: E. Labrousse eta P. Vilar dira ezagunenak. 50.eko hamarkadatik aurrera eta desestalinizazioarekin batera britainiar historialari marxisten talde inportante bat garatzen da, akademi munduan partehartze nabaria lortzen duena. Beraiengan aurki daitezkeen eraginak anitz dira: britainiar historiografia "progresista" bat (Hammond, Webb, Tawney...), M. Dobb ekonomilariarena... Hauen lana alor ekonomikora soilik mugatzen ez bada ere (giza historiaren bultzatzaile garrantzitsuak dira), ekonomi historiak presentzia handia izan du beti haien lanetan: R. Hilton, C. Hill, E. Hobsbawm eta E. P. Thompson dira ezagunenak. Beste historialari eta ekonomilari britainiarren antzera, azken mendeetan Irlek jasan dituzten aldaketa sakonak izan dira ikertutako gaiak gidatu dituen lema: Industri Iraultza eta bere ondorioak, Ingeles Iraultzaren zentzua, feudalismoaren eta kapitalismoaren arteko trantsizioa... Materialismo historikoaren ikuspuntutik azpigarapenaren (eta, bide batez, garapenaren oinarrien) arazoen analisi kritikoak ere bultzatuko dira. Ikertzaile hauek

gehienetan historialariak ez badira ere, beren lanetan ekonomi historiak paper garrantzitsu bat jokatzen du, galdera eta bide berriak irekiz. Hemen aipa daitezke A. Gunder Frank, S. Amin, I. Wallerstein...

Konklusio gisa

Ekonomi historiak, hortaz, gure ezaguera historikoaren funtsezko zati bat ekoiztu duela esan dezakegu eta, ziurrenik, mende honetako historiografiaren zatirik aberasgarriena izendapen honekin zerikusia duten lanez osatuta dagoela esatea ez litzateke ausartegia izango. Azken urte hauetan disziplina honen krisialdiaz, agorketaz hitz egin izan bada ere, eta historialaritzaren "pasarelan" beste moda batzuk inposatzen direla dirudien bitartean, sakontasun asmorik ez duen sarrera-lantxo honekin disziplinaren bilakaeraz eta aniztasunaz hitz egin nahi izan dugu, bere historia ezagutuz bere egungo egoeraz hobeto jabe gaitez. Kritikak ugari izan dira historialaritzaren zenbait aldetatik, bereziki "New Economic History" delakoak beste histori zientzietatik suposatu zuen urrunketatik. Hala ere, kliometren lanak ekonomi historia guztiarekin konfunditzen dutenak nahasirik dabilta. Artikulu hau irakurri ondoren, argi geratu beharko luke inpresio hau disziplinak jarraitutako bide kulunkariaren ispilatze distortsionatu bat dela: betidanik bi zientziaren artean mugitu izan den ikasketa- eta ikerketa-multzo batena. Hau izan da bere dilema, baina honetan datza, gure ustez, bere indarra ere.

Bibliografía

Bibliografía ez oso luze honekin lan hau burutzeko gehien lagundu diguten zenbait lanen izenburuak eman nahi ditugu. Ez dugu testua notekin bete astun eta luzeegi ez egitearren, baina liburu hauetan aurki dezakezue hemen idatzi den guztiaren berri, informazio ugariagoa eta halaber aipatutako egileen lan desberdinen izenburuak.

BLAUG, M.; *Teoría económica en retrospectión*, Madril, 1985.

BURGIERE, A.; *Diccionario de ciencias históricas*, Madril, 1991.

BUSTELO, F.; "La 'Nueva Historia Económica': una revisión crítica", in *Moneda y Crédito* 125, 36-56 orr 1973.

CIPOLLA, C. M.; *Entre la historia y la economía. Introducción a la historia económica*, Bartzelona 1991.

COLE, K., CAMERON, J., EDWARDS, C.; *¿Por qué discrepan los economistas?*, Madril, 1990.

COLEMAN, D. C.; eta beste batzuk, "¿Qué es la historia económica?", in *Debats* 13, 24-36 orr, 1985.

CHAUNU, P.; *Historia cuantitativa, historia serial*, Mexiko, 1987.

DOSSE, F.; *La historia en migajas. De "Annales" a la "nueva historia"*, Valentzia, 1988.

FONTANA, J.; *Historia: análisis del pasado y proyecto social*, Bartzelona, 1982.

GALBRAITH, J. K.; *Historia de la economía*, Bartzelona, 1989.

HARVEY, C.; (arg.), *Business History: Concepts and Measurement*, London, 1989.

HEFFER, J.; "<<New economic history>>", in A. BURGIERE, op. cit., 225-227 orr.

JULIA, S.; *Historia social/sociología histórica*, Madril, 1989.

KINDLEBERGER, C. P.; *Historical Economics. Art or Science?*, London, 1990.

- KULA, W.; *Problemas y métodos de la historia económica*, Bartzelona, 1973.
- MADDISON, A.; *Historia del desarrollo capitalista. Sus fuerzas dinámicas*, Bartzelona, 1991.
- MENDELS, F.; "Economía. Historia económica", in A. BURGIERE, op. cit., 217-225 orr.
- O'BRIEN, P.; "Las principales corrientes actuales de la historia económica" in *Papeles de Economía Española* 20, 1984, 383-399 orr.
- O'BRIEN, D. P.; *Los economistas clásicos*, Madril, 1989.
- PAGES, P.; *Introducción a la Historia. Epistemología, teoría y problemas de método en los estudios históricos*, Bartzelona, 1983.
- PIQUERO, S.; *Memoria, proyecto docente y de investigación*, Bilbo, 1988.
- SCHUMPETER, J. A.; *Historia del análisis económico*, Bartzelona, 1982.
- TEDDE, P.; "La historia económica y los economistas" in *Papeles de Economía Española* 20, 1984, 363-381 orr.
- THOMPSON, E. P.; *Miseria de la teoría*, Bartzelona, 1981.
- TOPOLSKY, J.; eta beste batzuk, *Historia económica. Nuevos enfoques y nuevos problemas*, Bartzelona, 1981.
- VALDALISO, J. M.; *Memoria y proyecto docente*, Bilbo, 1992.
- VILAR, P.; *Historia marxista, historia en construcción*, Bartzelona, 1974.
- VILAR, P.; *Iniciación al vocabulario del análisis histórico*, Bartzelona, 1980.
- VILAR, P.; *Une histoire en construction. Approche marxiste et problématiques conjoncturelles*, Paris, 1982.

